

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2020 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa. Onestea mahasti aseguruak kontratatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2020ko deialdia**

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez, zeina aldatu baitzuten azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuak eta ekainaren 17ko 32/2014 Foru Dekretuak, onespena eman zitzairen nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriari, eta erabaki zen diruz laguntzea mahastien aseguruari (ardogintzako mahatsaren ustiatagirako aseguruak, eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatua eta ezohiko kalteen aseguruak) dagokien aseguru lerroa, besteak beste.

Arabako mahatsondoaren laborantzak hainbat kalte jasan ditu berriki, eguraldi txarraren ondorioz. Egoera horrek indartu egiten du mahastietako nekazaritza aseguruak kontratatzean sakontzeko beharra, tresna bat baita laguntzen duena murrizten aseguruak sinatzen dituzten ustiatagiek arrisku klimatikoaren aurrean duten kalteberatasuna, ezbehar horien ondoriozko galera ekonomikoei aurre egiten laguntzen baitu.

Uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuan mahastiak ez diren beste labore batzuetan aseguruak kontratatzeko laguntzak ezartzen diren arren, kontua da, alde batetik, lehen aipatutako bi foru dekretuen bidez onetsi diren aldaketak mahastietako aseguruari buruzkoak baino ez direla, oinarriak labore horren ezaugarri berezietara egokitzeko, eta, bestetik, azken urteotan onetsi den urtean behingo laguntza deialdia dela azken horiei buruzkoa.

Arabako mahastietarako aseguruak kontratatzeko laguntzak dekretu espezifiko eta independente batean arautzeak erraztu egin dezake laguntza horiek laborearen berezitasunetara egokitzea, bai eta laguntzak etorkizunean zuzenean ezartzen lagundu ere, primak konpentsatzeko Agrosseguroren bidez.

Mahastietako aseguruetarako laguntzen oinarri arautzaileen arauketa independente horrek uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretua hondar eduki deseguneratu batekin uzten du, eta horrek zaildu egiten du haren aplikazioa; hortaz, egokiagoa da hura indargabetzea.

Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan 200.000,00 euroko 40.1.04 42.02.479.00.02 partida dago, zeinak "Mahastien aseguruak kontratatzea sustatzea" izena baitu; hortaz, laguntza horien 2020rako deialdia onetsi behar da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzetarako oinarri arautzaileei, foru dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Onspena ematea laguntza lerro horren 2020ko deialdiari, ondoko xehetasun honen arabera:

– Diruz lagundu daitezkeen aseguru motak: 2020an indarrean dagoen Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalean, zeina Arabako Lurralde Historikoan dauden lurzatiei aplikatzeko baita ardogintzako mahatsarako, jasotako aseguru lerro eta moduluen barruan dagoen edozein.

– Eskakerak aurkezteko epea: foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 2020ko uztailaren 31 arte, egun hori barne.

– Kreditu erreserba. 198.990,80 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastuen aurrekontuaren “Mahastien aseguruak kontratatzea sustatzea” izeneko 40.1.01 42.02.479.00.02 partidaren kontura.

Kreditu horrek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bosgarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Xedapen indargabetzailea. Indarrrik gabe uztea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretua eta azaroaren 15eko 69/2011 eta ekainaren 17ko 32/2014 foru dekretuak, zeinen bidez lehenengo hori aldatzen baita.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

**MAHASTIEN ASEGURUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZETARAKO OINARRI  
ARAUTZAILEAK ONESTEN DITUEN FORU DEKRETUAREN ERANSKINA****1. artikulua. Xedea eta definizioak**

1.1. Foru dekretu honen xedea da ezartzea Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalako Arabako Lurralde Historikoaren barruan dauden mahastietako ardogintza mahatsetarako aseguruia izenpetzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

1.2. Europar Batasuneko legerian erabiltzen diren definizioez gain, ondoko lege hauetan ezarritako definizioak aplikatuko zaizkio honako foru dekretu honi: Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4koa 19/1995 Legea; Nekazaritza Ustiategiaren Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea, nekazari profesionalaren definizioa aldarazi zuena; Landa Eremuaren Garapen Jasangarriari buruzko abenduaren 13ko 45/2007 Legea; Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23koa 17/2008 Legea.

**2. artikulua. Onuradunak**

Honako baldintza orokor hauek betetzen dituzten eta hurrengo artikuluan agertzen diren aseguru lerroen poliza bat sinatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke laguntza hauen onuradunak:

**2.1. Pertsona fisikoak:**

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea.

b) Araban dagoen mahasti guztia Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan eta haren kokapenari dagokion jatorri deituran inskribatuta edukitzea.

c) Mahasti irregularrik ez izatea.

d) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.

e) 18 urte beteta izatea eta erretiratzeko 65 urte eta 10 hilabeteko adin ofiziala bete gabe izatea, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean.

f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

g) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

h) Ez jaso izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta debekua jaso ez izana Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioz.

i) Eskaera foru dekretu honetan jasotakoaren arabera egitea.

**2.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:**

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak artikuluan honen 2.1. apartatuaren a), b), c), f), g), h) eta i) letrek pertsona fisikoei ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 2.1.f) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

b) Egoitza soziala eta zerga egoitza Araban izatea. Ondorio horietarako, betekizun hori betetzen dela ondorioztatuko da baldin eta pertsona juridikoaren egoitza soziala eta zerga egoitza ALHn badago eta, gutxienez, bazkide guztien ehuneko 50aren (era berean, sozietatearen kapitalaren ehuneko 50eko partaidetza eduki behar dute gutxienez) egoitza soziala eta zerga egoitza ere Araban baldin badago.

c) Aurreko 2.1. e) apartatuan ezarritako adinaren betekizun hori betetzat joko da, zerga egoitzari buruz artikulua honen 2.2 b) letran zehaztutako irizpidea betetzez gain bazkide guztien erdiek (ehuneko 50) sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza izateko betekizuna betetzen badute.

d) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoen kasuan, elkarteren osaketa agertu behar dute osatzen duten pertsona fisiko guztien identifikazioa lortu arte; horrez gain, horiek ustiategi onuradunean duten kapitalaren ehuneko adierazi behar da.

e) Nortasun juridikorik ez duten sozietateek ezin izango dituzte laguntza horiek jaso, salbu eta:

- Jaraunspen erkidegoek, gutxienez sei urteko indibisio ituna baldin badute.
- Eskritura publiko bihurtutako agiriaren bidez osatutako sozietate zibilek.
- Estatutuak jasotzen dituen agiri pribatu batean eraturako ondasun erkidegoek, Ondare eskualdaketen gaineko Zergaren Zerbitzuak behar bezala izapidetuta.
- Titulartasun partekatuen itxura daukaten nekazaritza ustiategiek, bat etorri urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin.

2.3. Betekizunak egiaztatzeko behar den informazioa kasuan kasuko erakundeetatik lortuko da, eta lehentasuna izango dute Arabako Lurralde Historikoko Ustiategien Erregistroak eta haren Mahastien Erregistroak; aldaketak egin behar badira, ezinbestekoa izango da alde aurretik aldatzea, eta titularraren erantzukizuna izango da hori.

2.4 Nekazaritza elkarteen kasuan, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 19. artikulua aplikatuz, elkarre horiek emakumeen presentzia gutxienez orekatua izan behar dute beren zuzendaritza organoetan; nolahi ere, arau horren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa bete behar da.

### **3. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen aseguru lerroak**

Aseguru lerro hauek kontratatu izanaren ondoriozko kostua diruz lagundu ahalko da:

3.1. Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Planaren 312 lerroa ardogintzako mahatsaren ustiategietarako, edo haren baliokidea urteko ekitaldi bakoitzean, baldin eta Araban aplikatzeko bada.

3.2. Aseguru hitzartuen beste lerro batzuk, baldin eta Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Planean sartuta badaude eta diruz lagungarriak badira urteko deialdian, 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.3. Aseguruak egiten dituzten beste erakunde pribatu batzuekin hitzartutako beste aseguru lerro batzuk, baldin eta Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Planean sartuta badaude eta diruz lagungarriak badira urteko deialdian, 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, aseguruak honako hauen bidez baino ezin izango dira kontratatu: Ogasun Ministerioak baimendutako eta Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Aseguru etxeen Espainiako Taldean (AGROSEGURO) sartutako erakundeen bidez edo baimendutako agenteen bidez, eta hori guztia Nekazaritza Aseguru Konbinatuen abenduaren 28ko 87/1978 Legeak eta gainerako araudiek ezarritakoaren arabera.

### **4. artikulua. Laguntzen izaera eta zenbatekoa**

4.1. Foru dekretu honetan jasotako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.2. Laguntzen zenbatekoa izango da dirulaguntzen aurreko polizaren kostu garbiari ehuneko 65erainoko portzentajea aplikatuta ateratzen dena. Foru dekretu honi dagokion laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, beste administrazio publiko batzuek emandakoak deskontatuko dira. Dirulaguntzen baturak ezingo du inolaz ere polizaren zenbateko garbiaren ehuneko 65 gainditu dirulaguntzen aurretik, Europar Batasunaren zuzentzarauetan ezarritako mugen arabera, zeinak estatu laguntzei aplikatzekoak baitira, 2014tik 2020ra bitartean, nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan (412. apartatua).

4.3. Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkar-tuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide guztiek ez betetzea 2.1.b eta 2.1.c artikuluan zerta egoitzaren eta adinaren inguruan ezarritako baldintzak; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin 2.2.b eta 2.2.c artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizuna betetzen dela egiaztatu ondoren.

4.4. Laguntzen zenbatekoa, artikulua honetan ezarritako ehunekoak aplikatuz eta hala balegokio 8.5 artikulua aipatutako heineko banaketa aplikatu aurretik, 100,00 euro baino txikiagoa bada, ez da emango; halaber, ez da emango laguntzatan 3.000,00 euro baino gehiago, salbu eta onuraduna aseguru kolektiboaren poliza sinatu duen produktore elkarte bat bada, eta kasu horretan, gehienezko muga aterako da 3.000,00 euro batzetik banaka laguntza zenbateko horretara iristen diren bazkide bakoitzeko, baldin eta aseguru poliza kontrataturik badute.

4.5. Ustiategi eskatzaileak emakume bat badu titulartzat, edo sozietate bat bada, non kideen ehuneko 50 baino gehiago emakumeak badira eta haiek kapitalaren ehuneko 50 baino gehiago badute, aurreko apartatuan ezarritako 3.000 euroko muga ehuneko 10 handituko da.

4.6. Eskaera bat baino ez da onartuko ustiategiko.

#### **5. artikulua. Kontrolak**

5.1. Eskatzaileek foru dekretu honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak kasuan kasuko kontrolak egingo ditu.

5.2. Onuradunak baimena emango du bere ustiategian Arabako Foru Aldundiak agintzen dituen kontrol guztiak egin daitezen, eta laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

5.3. Eskatzaileek, foru dekretu honetan araututako ardogintzako mahats aseguruak kontratatzeko laguntzetarako eskaera aurkezteagatik, baimena ematen diote Aldundiko Nekazaritza Sailari, beharrezkoa izanez gero, eta eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, beste administrazio batzuei informazioa lagatzeko, bitarteko informatiko edo telematikoen bidez, zerga betebeharrak egunean izatearen ala ez izatearen inguruan; horrez gain, dirulaguntza arautuak lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetzen duen bestelako informazioa ere lagatzeko baimena ematen diote.

#### **6. artikulua. Laguntza ukatzea, onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo bete-behar batzuk ez betetzeagatik**

6.1. Salbu eta 4.3 artikuluan xedatutakoetarako, eskatutako laguntza osorik ukatuko da baldin eta onargarritasun irizpideak ez badira ustiategi osoan betetzen.

6.2. Betekizunak ez badira betetzen eta horren ondorioz ordainketa eskaera ukatzen bada, ordura arte eskuratutako laguntzak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legez aplikatu beharreko interesekin batera.

#### **7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

Laguntza eskatzeko betekizunak, betekizun horiek egiaztatzeko modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, foru dekretu honetan ezartzen dira.

7.1. Urtero onetsiko da laguntza deialdia. Deialdi horrek hauek jasoko ditu:

- Urte bakoitzean onar daitezkeen aseguru lerroak.
- Eskaerak aurkezteko epea.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.

7.2. Laguntza eskaera Guardian dagoen Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari aurkeztuko zaio, zuzenean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako edozein bitartekoren bidez, eta foru dekretu honen eranskinean zehazten den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

7.3. Eskaeretan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo instrukzio-gileak eskatzaileari eskatuko dio, hala badagokio, galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskaera ezetsiko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## **8. artikulua. Izapidetzea**

8.1 Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak izapidetuko ditu.

8.2. Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

8.3 Eskaerak aztertuko dira onuradun izateko behar diten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta prest geratuko dira berariaz sortutako kide anitzeko organoak balora ditzan; hark txosten bat emango du haiek egindako balorazioaren emaitzarekin, eta bertan aldeko eta kontrako proposamenak agertuko dira, euren zioekin.

8.4. Laguntza horiek baloratuko dituen kide anitzeko organoa jarraian aipatzen diren pertsonen edo, beharrezkoa balitz, haiek ordeztzen dituztenek osatuko dute:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko kide bat.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazioko kide anitzeko organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

8.5. Dirulaguntzak lehia prozeduraren bidez esleituko dira, dagoen kreditua bera dela muga. Emango diren laguntzen bolumen osoak –behin laguntzaren ehunekoa aplikatu ondoren gutxieneko zenbatekora iristen ez diren eskaerak baztertu ondoren, eta 4. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen dutenak mugatu ondoren, han ezartzen diren salbuespenekin–dirulaguntza horietako guztira erabiliko den zenbatekoa gainditzen badu, heinean banatuko da onuradunen artean, alegia, oinarri hauen arabera, laguntzetarako eskubidea duten onuradunen artean, eta, hala, dagozkion zenbatekoak gutxitu egingo dira.

## **9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

9.1 Kide anitzeko balorazio organoaren proposamenez, Arabako Foru Aldundiko organo egokiak ebatziko ditu espedienteak indarrean dagoen legeriari jarraiki, eta horien ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Dena dela, administrazioaren aurkako auzi errekurtsua jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurtsu mota hori arautzen duen araudiari jarraiki, aukerako berraztertzeko errekurtsua jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

9.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik

aurrera. Epe hori igarotakoan berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

9.3 Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoa zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

9.4. Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango zaie.

#### **10. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

Laguntzak haiek eman eta berehala ordainduko dira.

#### **11. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak haiek bete beharko dituzte:

11.1. Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 egun baliouduneko epean onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

11.2. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu Sailari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasuneko organo eskudunei edo haien ize-nean eginkizunak betetzen dituzten organismo edo zerbitzu publiko edo pribatuak edozein helaraztea foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzari buruz haien betekizunak egikaritzean eskatutako informazioa, eta, halaber, erakunde horiek edo finantza kontrolleko erakundeek egin beharreko egiaztapenak igarotzea.

#### **12. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa**

12.1. Dirulaguntzak esleitzeko eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat eragiten bada –betiere dirulaguntzaren helburua bete dela aditurik–, eta, hala balegokio, hauekin batera beste dirulaguntzaren bat eskuratu bada eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren gehienezko muga gainditzen bada, gerta daiteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena alda dadin eragitea. Horretarako, ordea, organo kudeatzaile eskudunak dagokion aldaketa ebazpena emango du, eta, bertan, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak doitu egingo dira.

12.2 Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Aldundiari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

12.3. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

12.4. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko edo minoraziorako proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

12.5. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak aurreikusitako arau hausteengatik.

**13. artikulua. Araubide juridikoa**

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudian ezarrita dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

Edonola ere, urriaren 5eko Diputatuaren Kontseiluaren 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, jaso beharreko zenbatekoa 800,00 eurotik beherakoa bada, laguntzaren onuradun den pertsona fisikoak ez du edukiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatu beharrik, eta zenbatekoa 3.000,00 eurotik beherakoa bada, ez du edukiko Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatu beharrik.

**14. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin**

Dekretu honetan xedatutako laguntzak osagarriak izango dira, hala badagokio, eta Nekazaritza Aseguruen Estatuko Erakundeak (ENESA) Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Planaren esparruan emandakoekin osatu ahalko dira.

**15. artikulua. Laguntzak finantzatzea**

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta estatu mailako laguntzat joko dira.



**ERANSKINA****ESKAERARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskaera bakoitzarekin batera, nahiz eta agiri osagarriak eskatu ahalko diren:

**A. Oro har:**

1. Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.
2. Sinatzailearen NANA, haren nortasuna egiaztatu ahal izateko, edo eskatzailearekin zer harreman duen, pertsona juridikoa bada. Eskatzailearen gainerako kideen datuak zuzenean Ustiategiaren Erregistrotik lortuko dira.
  2. Eskatzaileak berariaz baimena ematen badu, laguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zuzenean eskuratzeko zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen eta ustiategiko kide guztien zerga egoitza, bai eta pertsona juridikoen kasuan sozietatearena eta kideena ere, zein den jasotzen duen ziurtagiria. Dena den, eskatzaileak ez du zertan baimenik eman, eta kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
  3. Aseguru polizaren kopia. Ez da onartuko bi aldeek –aseguru etxea eta aseguru hartzailea– sinatu ez duten aseguru proposamenik, eta proposamena bat etorri beharko da laguntzaren eskatzailearekin.
  4. Poliza ordaindu izana egiaztatzeko dokumentazioa. Dokumentazio hori banku erakundeak jaulki behar du osorik, eta banku elektronikoko dokumentazioa bada, banku agentzia batek zigilatuta beharko du. Ordainketan agertu behar da hura polizaren onuradunak egin duela, zeina, era berean, laguntzaren eskaitzalea ere izan behar baita.
  5. Eskatzailearen adierazpena, non hauek jasoko baitira:
    - Laguntza jasotzeko baldintzak ezagutzen dituela.
    - Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzearagozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez daukala, ez eta inolako legezko debekurik, sexu bereizkeriagatik ezarritako debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.
  6. Jaraunspenezko erkidegoen kasuan, indibisio ituna aurkeztu beharko dute, eta hura gutxienez 6 urtekoa izan behar da eskaera aurkezten den egunetik aurrera. Elkarteko kide guztiek sinatu beharko dute ituna.
  7. Eskatzailea poliza kolektiboa egin duten nekazaritzako ekoizleen elkarte bada, aurreko apartatuetan oro har eskatutako dokumentazioaz gain, beste hauek ere aurkeztu beharko ditu:
    - Bazkide diren eta aseguruari atxikitako laborea eta azalera duten nekazarien zerrenda.
    - Eusko Jaurlaritzaren elkartean erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
    - Zuzendaritza organoak osatzen dituzten pertsonen zerrenda.

Beharrezko den informazioa Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan dauden datuetatik lortuko da. Erregistro hori aldatuz gero, titular bakoitzaren erantzukizuna izango da eguneratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.